

HERRIKO KIROLARIEN PROFILA AZTERGAI

Errealak gola sartu du! Zer datorkizue gogora? Futbola, gizonak, helduen lehenengo taldea... Horiek guztiak ziurrenik, ezta? Kasualitatea al da? Jakin badakizue Errealaren nesken futbol taldea ere mailarik gorenean dabilela, ezta? Arraunketari esker, nesken kirol-jardueraren oihartzuna asko emendatu da azkenaldian, baina kirol guztietara orokortu al daiteke?

Herrian kirola egiteko aukeren inguruko azterketa egin dezagun. Sexu, adin edo ezaugarri fisikoen arabera, kirola egiteko aukerak aldatzen ote diren frogatzea izango da helburua. Horretarako, herriko kiroldegira eta ezagutzen dituzuen bestelako kirol elkarteetara hurbildu eta ondoko datuak jaso:

KIROLA EGITEKO AUKERA HERRIAN

EGIN AL DEZAKETE?	Mutilek	Neskek	≤10 urte	10-20 urte	> 20 urte	Ezinduek
Arraunketa						
Futbola						
Saskibaloia						
Pilota						
Eskubaloia						
Txirrindularitza						
Atletismoa						
Igeriketa						
Triatloia						
Beste batzuk...						


Zenbat kirolen eskaintza dago guztira?

Etta mutilentzako?

Etta neskentzako?

Etta 20 urtetik gorakoentzako?

Etta ezinduentzako?



Ariketa fisikoak egitearen onurak ezagunak dira: ondo pasatzea, osasuntsu egotea, gure buruari oreka ematea... Horregatik, txikitatik hasten gara bateko edo besteko kirola egiten baina, inoiz uzten al diogu kirola egiteari?

6 PROFIL EZBERDINEKO 6 HERRITARREI HONAKO GALDETEGIA LUZATU:

6 PERTSONA	Kirola egin al duzu inoiz?	Kirola egiten al duzu orain?	Zenbat ordu astean?	Kirola utzi baduzu, zergatik izan da?
20 urte ≈ mutila				
20 urte ≈ neska				
40 urte ≈ mutila				
40 urte ≈ neska				
60 urte ≈ mutila				
60 urte ≈ neska				

ONDOREN, GELAKO IKASKIDE GUZTIEKIN ZUK BILDUTAKO ERANTZUNAK PARTEKATU ETA ONDORIOAK ATERA:

Ezberdintasunik al dago adinaren arabera? Zergatik izango da?

.....

.....

Ezberdintasunik al dago sexuaren arabera? Zergatik izango da?

.....

.....